



Euskadiko nekazaritza elikagaien
katearen kontrol ofizialerako Plana
2016-2020

Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialeko Planean (2016-2020) jasotako Kontrol Ofizialen Eraginkortasuna Egiaztatzeko Prozedura

Egilea: ELIKA

Nork onetsia: Koordinaziorako Talde Horizontala

Noiz onetsia: 2016ko ekainaren 3an

Bertsioa: 1/ 2016ko maiatza

EDUKIEN AURKIBIDEA

- 1.- Atarikoa
- 2.- Prozeduraren helburu zehatzak
- 3.- Giza baliabideak
- 4.- Egiaztapena gauzatzea
- 5.- Emaitzen eta adierazleen azterketa
- 6.- Urteko txostenak gauzatzea
- 7.- I. eranskina: egiaztapen-txostenerako taulak

1. HITZAURREA

882/2004 Araudiak ezartzen du agintari eskudunen erantzukizuna izango dela kontrol ofizialen eraginkortasuna, egokitasuna, inpartzialtasuna, kalitatea eta koherentzia bermatzea, maila guztietan.

Euskadiko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Planaren testuinguruan, kontrol ofizialak egiaztatzeak honako hauek hartzen ditu barne: alde batetik, kontrol ofizialak behar bezala egiten ari direla egiaztatzea, onetsitako Programa eta Prozedurei jarraikiz (**Kontrol Programak betetzen direla ikuskatzea**); bestetik, Programa eta Prozedura horiek ondo planteatuta daudela, hau da, haien sorrera eragin duten helburuak betetzen direla, egiaztatzea (**Kontrol-sistemaren eraginkortasuna egiaztatzea**).

882/2004 Araudiari jarraikiz, **ikuskaritzak** kontrol-sistemaren eraginkortasuna osorik edo zati batean ebaluatzeko tresna bat ere badira, hautatutako irismenaren arabera. Ikuskaritzak independentea den eta ikuskatzen den kontrolarekin zerikusirik ez duen organismo batek egingo ditu. Plan honetan biltzen diren Kontrol Ofizialeko Programa guztiei barne-ikuskaritzak egingo zaizkie, **2016-2020 aldirako Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Planaren Ikuskaritza Programan** zehaztutako moduan.

Bestalde, aipatu 882/2004 Araudiak kontrolen eraginkortasuna egiaztatzeko eta egiaztapen horretan hautemandako gabeziak konpontzeko neurri zuzentzaileak hartzeko prozedurak gauzatzeko beharra ere ezartzen du.

Euskadiko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Planaren Koordinaziorako Talde Horizontalak egiaztapen hori egiteko prozedura horizontala adostu du. Prozedura hori Euskadiko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako programa guztiei aplikatu ahalko zaie, eta Programa bakoitzean dagozkion berezitasunak aplikatuko dira, hala dagokionean.

2. PROZEDURAREN HELBURU ZEHATZAK

Prozedura honen xedea da sistematika bat ezartzea kontrolak eraginkorrak direla beratzeko. Horretarako, honako hauek egiaztatuko dira:

- ⇒ Kontrol ofizialak ezarritako programen eta prozeduren arabera egiten ari direla.
- ⇒ Kontrol Programa exekutatzeari esker, bermatu daiteke alor bakoitzeko legedia (elikagaien eta pentsuen higieneari buruzkoa, animalien osasunari eta ongizateari buruzkoa eta beste lege batzuk) eta Kontrol Plan bakoitzean zehaztutako helburu zehatzak betetzen direla.
- ⇒ Neurri zuzentzaileak hartzen ari dira hautemandako gabeziak konpontzeko.

3. GIZA BALIABIDEAK

Hauek dira Kontrol Programetan parte hartzen duten pertsonak:

- ⇒ **Ikuskariak:** ikuskaritzak tokian bertan edota datu-baseak erabiliz egiten dituzten pertsonak. Administrazioko langileak edo horretarako prestatutako kanpoko langileak izan daitezke.
- ⇒ **Kontrol Programa bakoitzeko arduradunak:** ikuskaritza-lanak egiten dituzten langileen gainean erantzukizun funtzionala duten pertsonak.
- ⇒ **Zerbitzuko buruak diren pertsonak.** Aurrekoen gainetik daude erantzukizun-hierarkiari dagokionez.
- ⇒ **Koordinaziorako Talde Horizontaleko ordezkariak:** Kontrol programa bakoitzaren ordezkariak Koordinaziorako Talde Horizontalean, hark berariaz ordezkari izendatu dituelako.

Baliteke Kontrol Programako arduradunak izatea zerbitzu horretako buruak, eta pertsona horiek izatea, halaber, Koordinaziorako Talde Horizontaleko ordezkariak.

Kontuan izanik pertsona batek ezin duela berak egindako lanaren jarraipena egin eta lan hori egiaztatu, Egiaztapen Prozesuan norke parte hartzen duen eta bakoitzak zer rol duen zehazten da jarraian.

- ⇒ **Kontrol programa betetzen dela ikuskatzea:** agintaritza eskudun bakoitzean kontrol programetako arduradunak diren pertsonak egingo dute. Programetako arduradunak ikuskaritza-lanak egin dituzten pertsona berak badira, hierarkiari dagokionez pertsona horien gainetik dagoen norbaitek egin beharko du egiaztapena.
- ⇒ **Kontrol-sistemaren eraginkortasuna egiaztatzea:** agintaritza eskudun bakoitzean kontrol-planak exekutatzeaz arduratzen diren erantzule funtzionalek edo hierarkikoek egingo dute.

4. EGIAZTAPENA GAUZATZEA

Egiaztapen-prozesuak bi fase hauek ditu:

- ⇒ **I. FASEA:** Kontrol-programa betetzen dela ikuskatzea.
- ⇒ **II. FASEA:** Kontrol-sistemaren eraginkortasuna egiaztatzea.

I. fasea: Kontrol-programa betetzen dela ikuskatzea.

Ikuskatze horren bitartez, ikuskatze- eta kontrol-lanen arduradunek egiaztatuko dute ezarritako prozedura betetzen dela. Bukatutako espedienteen egiaztapen dokumentala eta egindako ikuskaritza-prozesuaren *in situ* egiaztapena hartuko ditu barne.

- ⇒ Ikuskatze dokumentala: egiaztatzen ari diren urtean bukatu diren kontrol ofizialen espedienteak egiaztatuko dira. Espediente osoa egiaztatuko da, baita kontrol-aktak eta ikuskaritzari loturiko informazio guztia ere, besteak beste laginketak. Halakorik egongo balitz, aztertutako analisi-parametroak ere egiaztatuko dira.
- ⇒ In situ egindako ikuskatzea: egiaztatzen ari diren urtean egindako ikuskaritzen tokian bertan egingo da jarraipena. Ikuskariarekin batera joango dira eta hark egiten duten prozesu osoa jarraituko dute, ikuskaritza prestatzen hasten denetik espedienteak ixten duen arte.

Taula honetan biltzen dira estatu-mailako programen koordinazio-mahaiek edo batzordeek autonomia-erkidego guztietarako ezarri dituzten kontrol-programen gutxieneko ikuskatzeen ehunekoak:

KONTROL PROGRAMA	Ikuskatze dokumentalaren %a	<i>In situ</i> egindako ikuskatzearen %a
Erauzketa-arrantza	%10	%5
Akuikultura	%10	%5
Abeltzaintza-ustategiak	%3	%1
Nekazaritzako ekoizpen primarioa	%4	%1
Animalien elikadura	%1	%1
Animalien ongizatea	%3	%1
SANDACH	%3	%1
Elikagai merkataritzaren kalitatea	%5	%2
Landare-osasuna	%3	%1

Horrez gain, Abeltzaintzako Ekoizpen Primarioaren Higiearen, Nekazaritzako Ekoizpen Primarioaren Higiearen, Animalien Ongizatearen eta SANDACHen arloko programetan, arau-haustek hauteman diren ikuskaritzetako akten % 100en jarraipena egingo da.

II. fasea: Kontrol-sistemaren eraginkortasuna egiaztatzea.

Egiaztapen hori Kontrol Programekin zerikusia duten agiriak berrikustean datza, honako hauek barne: erabiltzen dituzten lanerako protokolo eta prozedura normalizatuak, datu-baseak edo informatika-aplikazioak, aztertu beharreko lagina hautatzeko sistema, egindako txostenak eta abar. Horrez gain, agiri horiek Kontrol Programan ezarritako helburuekin koherenteak diren ere aztertuko da.

Egiaztapen horren helburua da kontrol-programa aldatu behar den aztertzea. Hori dela eta, atal honetan desadostasun bat aurkituz gero, desadostasunak arintzat joko dira eta horiei aplikatu beharreko neurri zuzentzaileak agiriak edo tresnak berrikustea edo hobetzea baino ez dira izango.

Neurri zuzentzaileak joko da ikuskaritzaren ondoren egiten den eta hautemandako desadostasuna zuzentzeko ezartzen den edozein neurri edo ekintza, desadostasunaren larritasunaren arabera; hauek, esate baterako: kontrol ofiziala errepikatzea, baliorik gabe gelditu delako; prozedurak aldatzea; protokoloak aldatzea; kontrolen lehentasuna zehazteko irizpideak ezartzea; langileei prestakuntza ematea; tokian bertan ikuskatzailearekin batera desadostasun jarraipena egitea; barne-ikuskaritzaren emaitzak gehiago erabiltzea; informatika-aplikazioak hobetzea; koordinazio- edo lankidetzak prozesuak hobetzea eta abar.

5. EMAITZEN ETA ADIERAZLEEN AZTERKETA

Aurreko atalean zehaztu berri diren ikuskatzeak eta egiaztapenak egin ondoren, emaitza guztiak aztertuko dira eta honako adierazle hauek beteko dira (I. eranskina):

Ikuskatze-programaren betetze-mailari buruzko adierazlea (1. taula):

$$\Rightarrow (\text{Egindako ikuskatze kopurua} / \text{Programatutako ikuskatze kopurua}) \times 100$$

Ikuskatzeen adostasunari buruzko adierazlea (2. taula):

$$\Rightarrow (\text{Adostasunik gabeko ikuskatze kopurua} / \text{Egindako ikuskatze kopurua}) \times 100$$

Ikuskatzearen ondorengo egokitzapenari buruzko adierazlea (2. taula):

$$\Rightarrow (\text{Adostasunik gabeko eta neurri zuzentzaileak ikuskatze kopurua} / \text{Adostasunik gabeko ikuskatze kopurua}) \times 100$$

Halaber, adierazle horiek kontrol-programa bakoitzean egindako egiaztapenaren azterketa kualitatiboa gauzatzeko ere balioko dute, bai eta programarentzat interesgarrien diren adostasunik ezak eta horien ondorioz ezarri diren neurri zuzentzaileak xehetasunekin deskribatzeko ere (**3. taula**).

6. URTEKO TXOSTENAK GAUZATZEA

Bukatutako urteko kontrol-jardueren betetze-maila aztertu eta kontrol-sistemaren eraginkortasuna egiaztatu ondoren, txosten bat egingo da; bertan jasoko dira egiaztapen horien emaitzak eta lortutako emaitzen balioespena.

7. I. ERANSKINA

I. ERANSKINA:EGIAZTAPEN-TXOSTENERAKO TAULAK

1 TAULA: IKUSKATZE-PROGRAMAREN BETETZE-MAILA							
KONTROL-PROGRAMA	EGINDAKO KONTROLAK	PROGRAMATUTAKO IKUSKATZEAK		EGINDAKO IKUSKATZEAK		IKUSKATZE-PROGRAMAREN BETETZE-MAILAREN %	
		DOKUMENTALAK	IN SITU	DOKUMENTALAK	IN SITU	DOKUMENTALAK	IN SITU

2 TAULA: IKUSKATZEAREN ADOSTASUN-GRADUA				
KONTROL-PROGRAMA	EGINDAKO IKUSKATZEAK, GUZTIRA	DESADOSTASUNEN BAT DUTEN IKUSKATZEAK	DESADOSTASUNEN BAT DUTEN IKUSKATZEEN EHUNEKOA, ZENBATEKO OSOTIK	DESADOSTASUNEN BAT DUTEN ETA NEURRI ZUZENTZAILEREN BAT HARTU DUTEN IKUSKATZEAK

3 TAULA: EGIAZTAPENEN DESADOSTASUN MOTAK			
KONTROL-PROGRAMA	DESADOSTASUN MOTA	MOTA BAKOITZEKO DESADOSTASUNAK	MOTA BAKOITZAREN EHUNEKOA, DESADOSTASUNEN ZENBATEKO OSOTIK
	K. OFIZIALA BALIOGABETU DEZAKEEN DESADOSTASUNA		
	DESADOSTASUN TXIKIA EDO ARINA		

